

# NERABEAK

## Bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindako indarkeria matxista pairatu duten emakume nerabeen arreta integralean espezializatutako unitatea

EDE

Suspergintza
Intervención Social

nerabeak
Arreta psikosoziala genero indarkerian
Atención psicosocial en violencia de género

GIPUZKOA
Foru Aldundia · Diputación Foral



## Jardueraren Xedea

Bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindako indarkeria matxista pairatu duten neska nerabeei arreta integrala emateko unitatearen helburua da neska nerabeek eta adin txikikoek (13-21 urte) pairatzen dituzten indarkeria matxistaren egoerak antzematea eta arreta eskaintzea.

Arreta integrala emateko unitatearen arretagune nagusia nerabeek haien bikotekideengandik edo bikotekide ohiengandik jasandako abusuzko harremanak izango dira. Halaber, "bikote" harremanak izatera heltzen ez diren arren, nolabaiteko lotura afektiboa, sexuala, eta/ edo biak dituzten harreman-egoerei ere eskainiko die arreta.

## Helburuak

Nerabeek bizi dituzten indarkeria-egoeren inguruko kontzientzia hartzeko aukera ematea, egoera horietatik atera ahal Izateko. Abiapuntua biktimarentzako ikuspegi ahalduntzailea eta begirada feminista izango dira, berdintasun harremanak eta tratu onak sustatuz.

Nerabeei laguntzea eta haien segurtasuna indartzea da xedea, prebentziotik hasita, bestelako kalteak eta/edo indarkeria matxista berriro pairatzea eragotziz.

Nerabeei emozionalki osatzen eta autoestimua berreskuratzen laguntzea.

Nerabea gizarteratu eta komunitatean integratu ahal izateko izaera soziala eta komunitarioa duen esku-hartzea erraztea.



# Nerabeen ezaugarriak

- Biktima bezala identifikatzeko zailtasunak
- Indarkeriaren normalizazioa eta barneratzea
- Helduekiko eskuhartze desberdina, denbora/erritmo desberdina (etapa dela eta)
- Arrisku egoerekiko esposizio handiagoa, indarkeriakiko eta bestelako arrisku egoerak
- Aurkitzen diren arrisku egoerak, batez ere adintxikikoekin
- Indarkeria tipología anitzak
- Nerabezaroan: nor diren deskubritzen (identitatea)
- Indarkeria sare sozialen bitartez
- Beranduago laguntza eskaera, familia ez da erreferentziazko inguru bat kasu askotan nerabezaroan
- 16 urtetik behera: erabakiak askotan ez daude beraien esku
- 18-21 urte tartea. Trantsizio momentua, ez dute sentitzen dagoeneko “helduak” direla.
- Eskuhartzeetan epe luzeagoen beharra



# Eragina duten ezaugarriak

- Genero indarkeria pairatu duten biktimen alabak
- Egoera familiar konplexuak
- Lagun-sare murritza
- Autoestima baxua
- Lehenengo harreman afektiboak
- Dependentzia emozionala
- Taldeko presioa / onartuak izan nahi dute
- Osasun mentaleko arazoak
- Kontsumoak



# Nerabeetan indarkeriari buruzko mito eta sinesmenak

- Haurren/gazteen gauzak dira
- Pasako zaie
- Indarkeria jasan bezain laster konturatuko dira
- Beharrezkoa den informazioa daukate eta kontzientziatuak daude
- Biktima eta agresoreak "kanpotarrak"
- Biktimak "ahulak"
- Maitasun erromantikoa errotuta
- Jarrera batzuk normalizatzen dira eta ez dira indarkeria bezala ikusten.
- Nire alaba/semeari ez zaio gertatuko /ez da horrelakoa



# Detekzio indikadoreak

- Denbora gehiago pasatzen dute mobilari pendiente
- Beraien ohiko lagunetatik urrundu dira, edo iada gutxiago geratzen da eurekin, gutxiago hitz egiten du lagunetaz.
- Janzkera aldatu dute
- Jarrera ere aldatu dute, normalean okerrera. Batzuk kanporako jarrerak: agresibitatea, irritatuak. Beste batzuk barruraka: bere munduan gehiago, denbora bakarrik, itzalita, energía gutxi, triste, e zoso hiztun, goserik ez edo antsietatearekin jan
- Ez dira ongi sentitzen bere gorputzarekin
- Iruzkin negatiboak bere buruaz



# Unitatearen funtzionamendua

- Eskaera jasotzea (edozein atetik: Gzak, Pertsonak, formakuntza zentruak,…)
- Lehenengo elkarrizketa
- Konsentimendua (- 16, + 16 edo +18)
- Jarraipena (PIA)
- Kontaktua Gzekin (+ beharrezkoak direnak)

# Ekintzak (2025)

| | |
|---|---|
| Arreta psikosoziala nerabeei | 33 |
| Orientazioa eta aholkularitza familiei | 23 |
| Informazioa profesionalei | 6 |
| Sentsibilizazioa eta prebentzioa | 31 |

**Komunikazio eta difusio ekintzak**

- Ikastetxeak-Lanbide Heziketa
- Gizarte zerbitzuak
- Bestelako elkarte eta erakundeak



# Ekintzak

Indarkeria bikotekide ohiagandik jasanda: **17**
Erasotzailearekin gaur egun harreman sentimentala duten nerabeak: **5**
"Bikote" harremanaz kanpo jasanda indarkeria: **11**

Arreta zuzena

**33**

- Artutako nerabeen bataz besteko adina **16 urte** izan da.
- Gipuzkoako **8 udalerritan** artatu dira kasuak.
- Deribazio bideak: **%69,7 OGZ**, % 18,2 emakume zerbitzuen sarea, % 6,5 ingurua, %6 beste entitate sozialak, % 2,9 ikastetxeak.
- % 58,8ak salaketa aurkeztu du.
- **Esku-hartze indibidual: modu presentzialean %100 kasuetan**.

# Udalerriak



- Debagoiena (%14,7)
- Urola goiena (%5,9)
- Bidasoa (%14,7)
- **Donostialdea (%35,3)**
- Goierri (%5,9)
- Oarsoaldea (%8,8)
- Tolosaldea (%2,9)
- Urola-kosta (% 11,8)



## Indarkeriaren tipologia

| | |
|---|---|
| Psikologikoa | 7 |
| Fisika | 8 |
| Soziala | 3 |
| Sexuala | 13 |
| Digitala | 2 |

### Indarkeriaren ondoriak

- Antsietatea
- Krisi bitala
- Ideia suizidak
- Tristuta sentimendua
- Harreman disfuntzionalak
- Autolesioak eta gatazkatsuak familian
- Depresioa

## Itxierak

**15 kasu**

Itxiera gehienak (10) helburuen lortzeagatik izan da. Gainontzekoak, beste arroziengagtik izan dira. Adibidez: nerabeak berak ezin zuen edo ez zuen nahi jarraitu, beste esku-hartze batzul hasi dira eta ez da aporposa ikusi jarraitzea, etab.

## Kasu berriak

**14 kasu (2025)**

2025 urtean programak 33 kasu izan ditu aktibo arreta zuzenean. Horietatik, 14 izan dira berriak, hau da, 2025ean sartu direnak.

## Sentsibilizazioa eta prebentzioa

**31 ekintza**

Ikastetxeetan hitzaldiak eta tailerrak egitea gai hauei buruz: hezkidetza eta genero-sentsibilizazioa; indarkeria hautemateko adierazleak; teknologia berrien bidezko indarkeriaren prebentzioa, etab.



# Ondorio eta hausnarketak

- **Programa aitzindari eta berritzailea foru eta autonomia mailan.**
  - Ez dago indarkeria matxistaren biktima diren emakume nerabeentzako arreta integral eta espezializaturako baliabiderik. Nerabeen genero-indarkeriako kasuak **%87,2 gehitu dira**, ANAR Fundazioak egindako "Emakumeen aurkako indarkeriaren bilakaera haurtzaroan eta nerabezaroan Espainian (2018-2022)" azterlanaren arabera. Gainera, bestelako indarkeria moten igoera ere azpimarratzekoa da, **ziberindarkeriak** esaterako.
  - **Prozesuaren protagonista da nerabea**: bere beharrei eta eskaerei erantzutea prozesuaren edozein fasetan.
  - Esku-hartze psikosozial eta sozioedukatiboko **tresnak egokitzen dira nerabeei zuzenduta**, adin-tartearen eta indarkeriaren tipologiaren arabera.
  - **Esku-hartze integrala eta diziplina anitzekoa** da nerabearen ingurunearekin: nerabea, familia, ikastetxea, Osakidetza, epaitegia, etab.
- **Interes handia** piztu du nerabeekin lan egiten duten eragile komunitarioen artean, herritarren artean oro har, eta indarkeria matxistaren biktima diren emakumeei arreta emateko zerbitzuen artean.



# Ondorio eta hausnarketak

- Indarkeria-egoerari erantsitako problematikak. **Osasun mentaleko arazoez, substantzien kontsumoaz eta familiaren desegituraketaz ari gara**, besteak beste. Batzuetan, kontingentzia horiek **zaildu egiten dute indarkerian sakondu ahal izatea**. Batzuetan, alderdi horiei heltzeak zaildu egiten du esku hartzeko aurreikusitako denborak betetzea, eta horrek esan nahi du prozesuak luzatu egiten direla, eta hori ere zaila da onartzeko eta onartzeko.
- Zerbitzu mota horiek arreta-prozesuak dakartzate berekin pertsonekin (kontzientziatzen, erabakiak hartzen... laguntzea) eta pertsonengan oinarritutako ereduekin, eta **denbora luzeagoa behar dute (6hilabete/2urte) zerbitzu horien ezarpena eta emaitzak testatzeko.**
- Ikastetxeek, **nerabeen biztanleriarekin eta ikaslegoarekin lan egiteko beharra** eskatzen dute, indarkeriarik gabeko harreman afektibo-sexualak sustatzeko, erasoek gora egin baitute.


"Sentitzen dudana onartzea"
"Entzuna izatea"
"Nire burua ezagutzen eta ulertzen laguntzea"
"Niretzako espazio bat izatea"
"Konfiantza eta segurtasuna gertatutakoaz hitz egiteko"
"Malgutasuna eta pazientzia"